

# gaz-teak



Doako alea

311 Zb.  
www.getxo.eus  
getxoberri@getxo.eus

>> 2017ko martxo

# Zinegoak 2017

20/02-5/03

# Zinegoak

www.zinegoak.com

Bilboko gaylesbotrans 14. nazioarteko zinema eta arte eszenikoan jaialdia  
14º festival internacional de cine y artes escénicas gaylesbotrans de Bilbao  
14th Bilbao International gaylesbotrans film and performing arts festival

ANTOLATZAILEA ORGANIZA



BABESLE OFIZIAK PATROZNAKIDEPES OFIZIALES

berdindu!



LAGUNTZAILEAK COLABORADORES



ANAKOZ ESTUDIATU KATALUNE 2017



## Martxan da Getxoko III. Book Trailer Lehiaketa

Datorren apirilaren 14ra arte zabalik egongo da Getxoko III. Book Trailer Lehiaketa parte hartzeko lanak aurkezteko epea, Kalabazan Kultur Ekimenak-en eta Udaleko Gazteria Zerbitzuaren, Euskara Zerbitzuaren eta Udal Liburutegiaren artean abian jarrita, gazteen artean euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko. Liburu bat ezagutarazteko egiten den bideo laburra da *Book Trailer* bat. Liburuak zabaltzeko eta irakurleak erakartzeko erabiltzen dira horiek eta filmetako trailerren antzeko teknikak erabiltzen dira. Normalean Book Trailerrek minutu inguruko iraupena izaten dute eta Internet-en bidez hedatzen dira.

### Baldintzak

12 eta 18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete lehiaketa, eta egin beharreko lana honakoa da: aukeran ematen diren liburuetako bat irakurri, eta horren trailerra egitea. Gehienez hiru pertsonako taldeek parte hartu dezakete eta baita bakarka ere, eta aurtan ez da baldintza izango taldeko kide bat behintzat Getxon erroldaturik egon behar izatea; beraz, Euskal Herriko edozein gazte har dezake parte. Lanak [sardadilakalabazan@gmail.com](mailto:sardadilakalabazan@gmail.com) posta elektronikora helarazi beharko dira, bideoak Youtubean eskegi eta lotura e-mailez bidalita.

Ondoren, maiatzaren 13an sari-banaketa egingo da eta bertan, euskara eta euskal kulturaren alorreko hiru kidek osatutako epaimahai batek irabazleak aukeratuko ditu.



### Kategoriak eta sariak

Aurtan hurrengo bi kategoria egongo dira: A kategoria (16-18 urtera) eta B kategoria (12-15 urtera). Kategoria bakoitzeko irabazleek tablet bana izango dute sari, eta bigarrenek eskola materiala erosteko 50 euro. Halaber, publikoaren saria ere emango da. Sari banaketara bertaratu direnek euren bideo gustokoena bozkatzeko aukera ere izango dute. Oinarri guztiak, eta *Book Trailerra* egiteko jarraibide eta ideiak, [www.kalabazan.com](http://www.kalabazan.com) webgunean daude eskuragarri.

## BEKAK SARIAK

\* **100 Beka, BEINT programa nazioartekotzeko**, Eusko Jaurilaritzak deituta, euskal gazteak lan munduan sartzen laguntzeko, trebakuntza egoki baten bitartez. Gradu goi mailako unibertsitate titulua duten pertsonen dago zuzenduta, deialdiaren urte bereko urtarriaren 1ean oraindik 30 urte bete ez dituztenentzat, hain zuzen. Ingelesa menperatu behar da (B2 maila), eta ahozko zein idatzizko azterketekin egiaztatu beharko da; horrez gainera, ez dute jaso behar izan antzeko ezaugarrietako beste laguntzaren bat. Eskerak, martxoaren 11ra arte aurkeztu ahal dira. Informazio gehiago: <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/>

\* **Pintura eta arte digitaleko sariak**, Carsak deituta artista helduentzat. Pinturaren atalean, hiru sari ezarri dira: 3.600, 2.400 eta 1.800€; horrez gainera, bi akzesit emango dira, 600na €koak. Eta arte digitalaren atalean, sari bakarra dago, 1.200€. Eskerak: apirilaren 21ean itxiko da. Oinarriak: <http://www.carsarte.es/bases/>. Informazio gehiago: CARSA, Asuako errepidea, 6. Tel.: 94 480 51 83.

### Gaztelekuaren programazioa

#### Martxoa

**Hilak 3, ostirala, eta 4, larunbata:** INAUTERI TAILERRA: MAKILLAJE ETA KARAKTERIZAZIOA  
**Hilak 8, asteazkena, eta 23, osteguna:** EMAKUMEAREN EGUNA  
**Hilak 9, osteguna:** MASTERCHEF: FRUTAZKO BROTXETAK  
**Hilak 11, larunbata:** ESKULANA LUDOTEKAREKIN: XABOI NATURALAK  
**Hilak 12, igandea:** TAILERRA: ZINEGOAK  
**Hilak 16, osteguna:** EKINTZA: TAPOI SOLIDARIOAK  
**Hilak 17, ostirala:** MASTERCHEF: SANDWICH BEGETALA  
**Hilak 24, ostirala:** TAILERRA: IRADOKIZUN PANELA  
**Hilak 25, larunbata:** IRTEERA: LASERGUNE  
**Hilak 30, osteguna:** TOPAKETA

## IRAGARKIA

### Klaseak

- Irakasgai guztietarako klase partikularak eskaintzen dira; Ingelera, Lengoaia, Natur Zientziak... Lehen Hezkuntza eta DBH-n. Algorta, Getxon. 605.134.530 MIREN  
 - FRANTSES eta EUSKERA irakaslea behar dut 3. DBH-ko ikasleari klase partikularak emateko. Astean 2 ordu. 655.714.390 M<sup>o</sup>Jesus

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukiaren egiazkotasunaren erantzule izango.



## “Zinegoak” Nazioarteko gaylesbotrans Zinemaldia Getxora helduko da

Luzemetrai bat, zazpi laburmetraia eta ipuin kontalarien saioa izango dira aurtan Getxon Hegoak elkarteak Bilbon antolatutako *Zinegoak 2017* Nazioarteko Gaylesbotrans Zinemaldiaren barruan izango diren jarduerak. Bere hedapenean hartuko du parte berriro ere Udal Gazteria Zerbitzuak. Oraingoan, gainera, Gaztelekuaren emango den

nerabeentzako saio berezia izango da eta Kukupraka ludotekan ipuin kontalari baten saioa izango da. Hartara, aurtengo hedapena ikusle guztiei irekia izango da. Aurtengo programa honako egun hauetan egingo da:

**Martxoaren 8an:** *The Pearl of Africa* film luzea Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Guztientzat irekia. 20:00etatik 21:30era.

**Martxoaren 12an.** Nerabeentzako film laburren zikloa GAUE-GUN gaztelekuaren. 11 urtetik 17 urtera bitarteko gaztelekuentzat. 18:00etatik 19:00etara.

**Martxoaren 22an:** ipuin kontaketa Kukupraka Ludotekan. 5-6 urteko umeentzat (bazkideak) 18:00etatik 19:00etara.

Filmen argumentuak: [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria)

## 3D bidez inprimatzea, robotika, surf eta elikagaien manipulazioari buruzko tailerrak

Apirilean, maiatzean eta ekainean, Gazteria Zerbitzuak bere jarduerak eskaintza berria plazaratuko du, gazte getxotarrei ikastaroak eta tailerrak eskainiz. Eskaintza horren

barruan, honako ekintza hauek aurkituko ditugu: 3D bidezko inprimaketa, robotika, surfa eta elikagaiak manipulatzeko agiria goiz batean ateratzeko aukera. Jarduera

guztiak irekita daude aniztasun funtzionala duten gazteentzat. Kasu horretan, izena emateko unean laguntzaren bat izateko aukera baloratzea adierazi beharko dute.

### GAZTERIA TAILER ETA IKASTAROAK

DATAK	EKINTZA	ZERTAN DATZA	ORDUTEGIA	NORI ZUZENDUTA (URTEAK)	NON	HIZKUNTZA
Apirilak 20 Ekainak 1	3D Inprimak	3D-n inprimatzeko teknologia eskaintzen dituen aukerak ezagutzera	18:00-20:00	11-17 urte 18-30 urte	Elkartegia	Gaztelania
Apirilak 24	Elikagaien manipulazioa	Agiria emango da	10:00-13:00	18-30	Gazteleku	Gaztelania
Maiatzak 16 eta 17	Robotika eta Lego	Martera erronka 7 misio gaituz.	17:30-19:30	12-17	Gazteleku	Euskara
Ekainak 5-7-8-9	Surf	Itsasoa ezagutu eta errespetatzen ikasiko duzu.	17:30-19:30	8-15	Barinatxe hondartza	Euskara

Izenematea: 944.660.353 tel., [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) (zure izena eta nahi duzun tailerra edo ikastaroa adierazi eta harremanetarako telefonoaren zenbakia ere jarri -ahal dela, sakelakoa-), [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) eta Gazte Bulegoan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea, 98).

## 20 ikuskizun BreakOnStage 2017an

BreakOnStage 2017 Nazioarteko Kultura Urbano Eszenikoen Jaialdia ospatuko da Bilbao Arena Kiroldegian martxoaren 25ean, 18:45etatik aurrera. Aurtan, 20 ikuskizun labur taularatuko dira: Europako breakdance talde onetsuenak izango dira; 5 riderrek jauzi ikusgarriak egingo dituzte BMX bizikletekin, arrapala erraldoi batean; aurkeztutako artean, 5 hiri-dantza talde onenak lehiatuko dira eta modulu-zirkuitu bat ipiniko da, parkour erakustaldientzat. Amaitzeko, Ajax & Prok rap taldearen kontzertua izango da. Sarrerak: 10€ (Kutxabank eta Internet) eta dohainik 8 urte arteko umeentzat, nagusi batek lagundurik badao.

